



Ekonomia zirkularra berritzeko dirulaguntzak

2023ko deialdia

1. lerroa. Ekodiseinua eta Erakustaldia Ekonomia Zirkularrean

2. lerroa. Ekoberrikuntza Estrategikoa



BERRIKUNTZA EUSKADIKO 2030 EKONOMIA ZIRKULARREKO ESTRATEGIA ZABALTZEKO

Honako hauek oinarri hartuta ezarri dira lehentasunezko eremuak: Europako eta EAEko politika-azterketa iraunkortasunaren eta ekonomia zirkularren arloan, Europako Itun Berdearen jardura-ardatz nagusietan¹ eta balio-kate nagusietan egindako ingurumen-lehiaren zaintza², industria-eskaera³ eta beharrak⁴, merkatu-joerak⁵ eta ⁶ekonomia zirkularreko laguntza-programa nagusiekin egindako "benchmarking-a"⁷.

Azterketa horren eta berrikuntza ekologikorako motibazio-faktoreen ("driverrak") ondorioz, erreferentziazko bederlatzi eremu berritzaile identifikatu dira. Eremu horiek honela sailkatzen dira: produktuarekiko duten orientazioaren arabera (ekipoen, osagaien eta mugikortasunaren ekodiseinua; ontzi eta bilgarrien ekodiseinua; serbituzioa eta negozio-eredu zirkularrak; birmanufaktura eta konponketa aurreratua) edo materialei begira duten ikuspegiaren arabera (eskura dauden teknika onenak; metal giltzarriak eta material kritikoak; plastikoa; eraikuntzako mineralak eta materialak). 2022ko deialditik, "lurraldea" lehentasunezko gunea lurzoru kutsatuetarako eta klima-aldaketara egokitzeko teknologien lehentasunezko eremuekin integratu da.

Gunea	Lehentasunezko eremua	2030 Ekonomia Zirkularren Estrategia		"Green Deal 2030"
		EAE	Europa	
Produktua	Ekipamenduen, osagaien eta mugikortasunaren ekodiseinua			
	Ontzi eta bilgarrien ekodiseinua			
	Serbituzioa eta negozio-eredu zirkular berriak			
	Birmanufaktura eta konponketa aurreratua			
Materiala	Eskura dauden teknika onenak			
	Funtsezko metalak eta material kritikoak			
	Plastikoak			
	Mineralak eta eraikuntzako materialak			
Lurraldea	Lurzoru kutsatuak konpontzea			

1. taula: Berrikuntza ekologikoko lehentasunezko eremuek 2030eko Ekonomia Zirkularreko Euskal Estrategiaren erronkei eta jardura-ildoei, Ekonomia Zirkularreko Europako Ekintza Planari eta "Green Deal 2030" Europako Itun Berdeari egindako ekarpena. **Legenda:** lehentasunezko eremuaren gehieneko lerrokadura dagokion estrategiarekin; berdez, handia; horiz, ertaina

Aurretiazko diagnostikoan⁸ aurreratuta dauden eta 2030eko Ekonomia Zirkularren Euskal Estrategian bertan⁹ eta 2030eko Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Planean¹⁰ integratuta dauden lehentasunezko berrikuntza-eremuek funtsezko ekarpena egiten

¹ Basque Ecodesign Center, [Ingurumen-Zaintza Estrategikoko Txostena: ekonomia zirkularri buruzko 2024rako 10 gakoak](#)

² Basque Ecodesign Center, [Informes de Vigilancia Ambiental Competitiva en los sectores aeronáutico, automoción, eléctrico electrónico, ferroviario, marino, máquina herramienta, mobiliario, movilidad y logística](#), 2014tik 2020ra

³ Ihobe eta Siadeco, [EcoBarómetro industrial 2020 de las empresas vascas](#), 2020

⁴ Orkestra eta Ihobe, [Posicionamiento de las empresas vascas ante las oportunidades que ofrece la economía circular](#), 2020

⁵ Europako Batzordea, [A vision for the European Industry until 2030](#), 2019

⁶ Innobasque [Prospektiba Txostena 2019 Impacto de megatendencias en Euskadi: oportunidades y amenazas para la innovación](#), 2019

⁷ Bmbf y Fona, [Ressourceneffiziente Kreislaufwirtschaft Forschungskonzept für eine kreislaufoptimierte Wirtschaftsweise](#), 2018

⁸ Ihobe, [Economía circular en la industria del País Vasco. Diagnóstico](#), 2018

⁹ Eusko Jaurlaritza, [Euskadiko Ekonomia Zirkularreko Estrategia 2030, 2020](#)

¹⁰ Eusko Jaurlaritza, [Euskadiko Hondakinen Prebenitu Eta Kudeatzeko 2030eko Plana](#), 2021



dute ekonomia zirkularrak Euskadin dituen erronkei aurre egiteko eta, bereziki, Estrategiaren 2. erronkari aurre egiteko: “Materialetan, prozesuetan eta produktuetan berrikuntzak egitea”, “Green Deal 2030” Europako Itun Berdearen helburuekin eta 2030¹¹ Ekonomia Zirkularreko Europako Ekintza Plan berriarekin bat etorriz¹².

Europako Batasuneko Ekonomia Zirkularreko Ekintza Planak produktu iraunkorraren politika indartzen du ekodiseinuaren bidez^{13,14}, kontsumo berdea gehitzen du, ekoizpen zirkularra bultzatzen du eta sei balio-kate lehenesten ditu. Gainera, plan horrek zeharkako bi ekimen abiarazi ditu, zeinak lhoberen laguntzen dealdian islatzen diren:

- Ekonomia zirkularra, neutraltasun klimatikoari ekarpena egiteko ezinbestekoa^{15,16,17,18}
- Trantsizio zirkularra sustatzea berrikuntzaren eta digitalizazioaren bidez¹⁹

2022ko dealdian bezala, 2023an, “lurraldea” lehenesten da lurzoru kutsatuen eremu nagusi bakarrarekin; izan ere, klima-aldaketara egokitzeko teknika berritzaileak, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 2024²⁰ Planaren arabera bultzatu beharrekoak, eraikuntzako materialen lehentasunezko esparruan sartzen dira. Lehenik eta behin, Euskadiko Lurzorua Babesteko 2030 Estrategian²¹ jasotako berrikuntza ekologikoa bultzatu behar da, Europako Batasuneko Zero Kutsaduraren²² Estrategia berriarekin guztiz bat datorrena eta, bigarrena, Klima 2050²³ Euskal Autonomia Erkidegoko Klima Aldaketaren Estrategian azaldutakoa.

Aipatutako eremu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2030 Planaren (ZTBP 2030)²⁴ oinarrietan ere jasota daude, “Ekoberrikuntza” aukera-hobian, eta plan horren “Ekonomia zirkularra” eraldatze-ekimen berria, egun diseinu-fasean dagoena, finkatzen lagunduko dute.

EKOBERRIKUNTZA BULTZATZEN DUTEN FAKTOREAK (“DRIVERS”)

Argi definitutako motibazio-faktoretatik edo “driver”-etatik abiatzen diren enpresa-ekimen berritzaileak, enpresakoak nahiz kanpokoak, merkatuan soluzioa ezartzeko aukera handiagoa dute²⁵.

lhoberen zenbait azterlanen²⁶ eta Basque Ecodesign Center-en bidez identifikatutako barne-faktoreen artean, hauek daude: kostuen murrizketa, produktibitatea areagotzea, kalitatea, marka-irudia eta produktu eta zerbitzu berritzaileak eskaintzeagatiko bereizketa. Kanpoko motibazio-faktoreak²⁷ Europako Batzordearen politiketik bultzatzen dituzte gehienbat. Produktuei, materialei, ekoizpen-prozesuei edo erakundeari berari eragiten dieten erronkak dira.

Hauek dira **produktuaren** ingurumen-berrikuntzarako motibazio-faktore nagusiak:

- **Ekodiseinuari buruzko 2009/125 Zuzentaraua (ESPR):** berritzeko aukera nagusia da²⁸ etorkizuneko irizpideei aurrea hartzea edo horiek gainditzea, eta, batez ere,

¹¹ Europako Batzordea, *The European Green Deal*, COM(2019) 640 final

¹² Europako Batzordea, *A new Circular Economy Action Plan For a cleaner and more competitive Europe*, COM(2020) 98 final

¹³ Europako Batzordea, *Products and Circular Economy Policy recommendations derived from Research & Innovation projects*, 2020

¹⁴ Ihobe, *BEM2020: “Made in Euskadi ekodiseinuaren 20 urte”. 100 enpresatako fitxak*, 2020

¹⁵ Material Economics y Ellen MacArthur Foundation, *Completing the Picture - How the Circular Economy Tackles Climate Change*, 2019

¹⁶ Nazio Batuak - International Resource Panel, *Resource Efficiency and Climate Change: Material Efficiency Strategies for a Low-Carbon Future*, 2020

¹⁷ Material Economics, *The Circular Economy - a Powerful Force for Climate Mitigation*, 2019

¹⁸ Material Economics, *Preserving value in EU industrial materials. A value perspective on the use of steel, plastics, and aluminium*, 2020

¹⁹ European Resource Efficiency Knowledge Centre, *Erak Final Conference - Digitalisation and Industry 4.0*, 2019

²⁰ Eusko Jaurlaritza, *2021-2024 Energia Trantsizioa eta Klima Aldaketaren Plana*

²¹ Eusko Jaurlaritza, *Euskadiko Lurzorua babesteko 2030erako estrategia*, 2022

²² European Commission, *Pathway to a Healthy Planet for All. EU Action Plan Towards Zero Pollution for Air, Water and Soil*, 2021

²³ Eusko Jaurlaritza, *2050erako Klima-Aldaketaren Euskadiko estrategia*, 2015

²⁴ Eusko Jaurlaritza, *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana (ZTBP Euskadi 2030): oinarri estrategikoak eta ekonomikoak*, 2019-

²⁵ Orkstra eta Ihobe, *Posicionamiento de las empresas vascas ante las oportunidades que ofrece la economía circular*, 2020

²⁶ Basque Ecodesign Center eta Ihobe, *Ingurumen-zaintza estrategikoaren txostena*, 2022

²⁷ Ihobe, *Ekonomia zirkularra: Europako Batzordearen nobedadeak, aurreratzeko eta berritzeko* 2018

²⁸ Basque Ecodesign Center, *ErP. 2020 produktu-kategorien zerrenda* 2020



iraunkortasunari eta ekonomia zirkularri buruzko EN 45552-45559²⁹ arauetara egokitzea. Produktu Iraunkorretarako Ekodiseinuko Zuzentzarauaren zirriborro berriak³⁰ eta Ekodiseinuko Ekintza Plan berriak³¹, “Produktu Jasangarrien Ekimen” berriaren funtsezko tresnak³², produktu-kategoriak zabaltzen ditu, produktuaren pasaporte digitala³³ integratzen du eta irizpide berriak barneratzen ditu, eta duela gutxi aurkeztua izan ondoren, negoziazio-fasean dago.

Gunea	Lehentasunezko eremua	Ekonomia zirkularreko motibazio-faktoreak (kanpoko “driverrak”)									
		Produktua					Materiala				
		ErP	EPB	BEG	Gard	EMR	IED	Plasti	Reach	Tasa	Hon/E PR
Produktua	Ekipamenduen, osagaien eta mugikortasunaren ekodiseinua										
	Ontzi eta bilgarrien ekodiseinua										
	Iraunkortasuna lortzeko serbituzazioa										
	Birmanufaktura eta konponketa aurreratua										
Materiala	Eskura dauden teknika onenak										
	Funtsezko metalak eta material kritikoak										
	Plastikoak										
	Mineralak eta eraikuntzako materialak										

2. taula: Motibazio-faktore nagusiak edo kanpoko “driverrak”, lehentasunezko zortzi esparruetan ekoberrikuntza-eskaera sortzen dutenak produktu, material eta antolamenduan.

Legenda: ESPR³⁴ (2009/125 ErP Ekodiseinuko Zuzentzaraua egokitzen ari dela eta), EPB (erosketa eta kontratazio publiko berdea), BEGak (garraioan eta eraikuntzan eraginkortasunari buruzko zuzentzarauak), Tran (ingurumen-informazioaren gardentasuna, produktuaren ingurumen-aztarna eta ekoetiketak), IED (industria-emisioen zuzentzaraua), Plasti (plastikoen EBko estrategia eta erabilera bakarreko plastikoen zuzentzaraua), Reach (produktu kimikoen isurketari buruzko berariazko araudia), Tasa (isurtze-tasak eta isurketak debekatzeko legeria), Hond (bizi-bukaeraren, hondakinen, ekoizlearen erantzukizun luzatua), Trak (hornikuntza katearen trakzio eta kudeaketa jasangarria). Oihartzun handia (beltzez), ertaina (grisez) edo txikia (zuriz). Org = erakundea

- **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea (EPB)**³⁵: bizi-zikloaren ikuspegia duten ingurumen-irizpideak produktuen eta zerbitzuen³⁶ eskakizunetan eta balorazioetan txertatzea. Produktu Jasangarrien Ekimen berriak nahitaezko erosketa publiko berdea ezartzea aurreikusten du, eraikuntza-materialak edo arropa bezalako kategorietan. Euskadin, Ingurumen Administrazioaren Lege berriaren 84. artikulua³⁷ inflexio-puntu garrantzitsua da.

²⁹ Basque Ecodesign Center, *Ekodiseinuko Zuzentzarauaren (2009/125/CE) arau gehigarriak eta Ekonomia zirkularreko trantsizioa burutzeko arauen gehigarria. Europako Batzordearen M/543 agindua*, 2019

³⁰ Ihobe, *Europako Batzordearen Produktu Jasangarriaren Ekimen berria: enpresetarako eta negozioetarako inplikazioak*, 2022

³¹ Europako Batzordea, *Ecodesign and Energy Labelling Working Plan 2022-2024*, 2022

³² Europako Batzordea, *On making sustainable products the norm*, COM(2022) 140 final

³³ Cambridge Institute for Sustainability Leadership and Wuppertal Institut, *Digital Product Passport: the ticket to achieving a climate neutral and circular European economy?*, 2022

³⁴ European Commission, *Regulation of the European Parliament and of the council establishing a framework for setting ecodesign requirements for sustainable products and repealing Directive 2009/125/EC COM(2022) 142*

³⁵ Eusko Jaurlaritza, *Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa 2020*, 2016

³⁶ Joint Research Centre - Comisión Europea, *Product groups: ongoing EU Ecolabel and EU Green Public Procurement (EU GPP) criteria development and revisions*, 2020

³⁷ Eusko Jaurlaritza, *Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi*, 2021



- **Garraioan eta eraikuntzan energia-eraginkortasunerako politikak** (BEG): Europako 2019/631 Erregelamenduak, autoen berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak mugatzen dituenak³⁸, besteak beste, automobilgintzan piezak eta osagaiak arintzea eskatzen du; eraikinetako³⁹ energia-eraginkortasunari buruzko zuzentarauak, berriz, eraikuntza-materialetarako eta ekipo berritzaileetarako aukerak sortzen ditu oraindik
- **Ingurumen-informazio gardena eta zehatza bezeroari eta kontsumitzaileari** (Gard)⁴⁰: ingurumen-errendimendu handiko produktu eta zerbitzuen sinesgarritasunak informazio gardena, fidagarria eta hirugarrenen aldetik egiaztatua eskatzen du, publizitate engainagarria saihesteko. "Produktu Jasangarrien Ekimen" berriaren esparruan, informazio gardena arautzea⁴¹ aurreikusten da. Adibidez, I. motako edo III. motako⁴² ekoetiketak, bizi-zikloaren analisisian oinarrituak eta kanpotik egiaztatutako. Produktu-kategoriaren arauak (PCR) kategoria bereko produktuak elkarrekin konparatzeko aukera ematen dute.
- **Eraikuntzako Materialen Erregulazioa** (EMR)^{43,44}: Europako araudiaren zirriborro berriak bete beharreko ingurumen-irizpideak indartzeaz gain, produktuaren etorkizuneko pasaporte digitalean sartu beharreko ingurumen-informazioa ere zehazten du

Hauek dira industria-**material** eta industria-prozesuetako motibazio-faktore nagusiak:

- **Industria Emisioei buruzko Zuzentzaraua** (IPPC)⁴⁵: etorkizuneko nahitaezko eskakizunei, gomendioei edo sortzen ari diren teknologiei aurrea hartzea, emisioen mugak eta materialen eraginkortasuna eskatzeko. Zuzentzarauaren zirriborro berriak⁴⁶ materialen eraginkortasuna, berrikuntza eta digitalizazioa sustatzea aurreikusten du. Era berean, komeni da azpimarratzea altzairuari, aluminioari eta zementuari karbonoa doitzeko mekanismo berriak⁴⁷ ekoberrikuntzarako duen garrantzia.
- **Plastikoen Estrategia** (Plasti): hainbat tresna ezartzea, hala nola erabilera jakin batzuen murrizketak dituen Erabilera Bakarreko⁴⁸ Plastikoen Zuzentzaraua edo Plastikoen Aliantza Zirkularra⁴⁹ birziklatzeko kontsumo-konpromisoa, edo Plastikoen Europako Estrategiaren beraren bigarren mailako materiala edo jatorri berriztagarriko polimeroak birziklatu, birziklatu eta gehitzeko helburuak⁵⁰
- **Reach araudia**⁵¹ (Reach): produktu kimiko iraunkorragoen bilaketa azkartzeko eta birziklapenaren bidez materialen zikloan substantzia arriskutsuak mantentzea saihesteko informazio- eta kontrol-eskakizunak.
- **Isurketa-tasa eta debeku-aginduak** (Tasa): Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen Lege Berriak⁵² (84-97. artikulua) ezartzen duen estatuko isurketa-tasa berria (40 €/tonakoa) 2023aren hasieran jarri zen indarrean, alternatibak prebenitu eta bilatzeko, bai eta isurketak debekatzeko⁵³ edo mugatzeko aginduak ere, hala nola

³⁸ Europako Batzordea, *Regulation (EU) 2023/851 of the European Parliament and of the Council of 19 April 2023 amending Regulation (EU) 2019/631 as regards strengthening the CO2 emission performance standards for new passenger cars and new light commercial vehicles in line with the Union's increased climate ambition*

³⁹ Europako Batzordea, *Directive 2010/31 on the energy performance of buildings*, 2010

⁴⁰ Europako Batzordea, *The Environmental Footprint Pilots*, 2020

⁴¹ European Commission, *Empowering consumers for the green transition through better protection against unfair practices and better information*, COM/2022/143 final

⁴² Ihobe, *Produktuaren Ingurumen Adierazpenak. Produktuen ingurumen-informazioa eskaintzeko eta konparatzeko erreminta*, 2015

⁴³ European Commission, *Harmonised conditions for the marketing of construction products*, COM(2022)144

⁴⁴ European Commission, *Questions & Answers: Revision of the Construction Products Regulation*, 2020

⁴⁵ Europako Batzordea, *Directive 2010/75/EU on industrial emissions (integrated pollution prevention and control)*

⁴⁶ Europako Batzordea, *Proposal for a Revision of the Industrial Emissions Directive*, 2022

⁴⁷ European Commission, *Carbon Border Adjustment Mechanism: Questions and Answers*, 2021

⁴⁸ Europako Batzordea, *Proposal for a Directive on the reduction of the impact of certain plastic products on the environment COM/2018/340 final*, 2018

⁴⁹ Europako Batzordea, *Circular Plastic Alliance*, 2019

⁵⁰ Europako Batzordea, *A European Strategy for Plastics in a Circular Economy*, SWD(2018) 16 final

⁵¹ Europako Batzordea, *Regulation (EC) No 1907/2006 concerning the Registration, Evaluation, Authorisation and Restriction of Chemicals (REACH)*, 2006

⁵² Espainiako Gobernuak, *Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legea*

⁵³ Eusko Jaurlaritza, 49/2009 Dekretua, hondakinak hondakindegietan biltegitaruta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.



Zaldibarko zabortegiaren⁵⁴ intzidentearen ondoren ezarritakoak edo berriazko hondakin-korronteetarako⁵⁵ ingurumen-arauak.

- **Hondakinen zuzentarau espezifikoak** (Hon): ibilgailuen bizi-amaierako Zuzentarauak (EKI), aparatuei elektriko-elektronikoak (TEEH eta RoHS), bateriak⁵⁶ eta ontziak, ekoizlearen erantzukizun hedatuko⁵⁷ eskema berriak, bere bizi-zikloan eragiten duen ingurumen-inpaktuaren arabera modulaturako tasekin zerikusia dutenak eta, oro har, hondakinen esparru-zuzentarau berrikusia⁵⁸:

Antolamendu-mailan, ekonomia zirkularraren motibazio-faktore nagusia Hornikuntza Katearen Kudeaketa Jasangarriaren eskakizunak⁵⁹ edo “Green Supply Chain Management” direlakoak (GSCM) dira eta, besteak beste, energia berriztagarriak, mugikortasuna edo elikadura sektoreetako multinazionalak⁶⁰ buru direla, plataforma edo ekimen pribatuen bidez hedatzen da (adibidez, Ecovadis⁶¹, Carbon Disclosure Project...) eta bizi-zikloaren ikuspegia duten negozio-eredu berriak (serbituzioa).

Azkenik, **lurraldeari** dagokionez, motibazio-faktoreak nabarmen bereizten dira batetik bestera. Lurzoruaren kutsadura deuseztatzeko “driver” erreal nagusia Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko euskal legea bera da⁶² (4/2015), Euskadi mailan, eta Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen Lege berria estatu mailan. Lege horretan aipatzen den isurketa-tasa funtsezkoa da lurzoru kutsatuak konpontzeko errentagarritasun ekonomikoa ahalbidetzeko.

Klima-aldaketara egokitzeko teknologia berritzaileei dagokienez, hauek dira motibazio-indar nagusiak: lurralde-plangintza sektorialeko⁶³ arauak (LPS), hala nola Itsasertza Babesteko eta Antolatze LPS edo Ibai eta Erreken Ertzak Antolatze LPS, lurralde-plangintza partziala⁶⁴ (LPP) eta tokiko eraikuntza-, eraikuntza- eta hirigintza-arloko tokiko arauak eta baita eraikuntzarako produktuen erregulazioak ere.

LEHENTASUNEZKO EREMU HORIEK BETETZEKO BI LAGUNTZA-ILDO

Ihobek⁶⁵ euskal industriari zuzendutako Ekoberrikuntza Zirkularreko laguntza-ildok deialdi bakar batean sartzeak koherentzia eta argitasuna eman nahi die inplikaturako enpresa eta eragileei. Hurrengo lan-ildo hauek⁶⁶ proposatzen dira industria-sustatzaile batek zuzentzeko:

- **Ekodiseinua eta Erakustaldia Ekonomia Zirkularrean:** 30.000 €/proiektu arte (1. ildo)
- **Ekoberrikuntza estrategikoa:** 150.000 €/proiektu (2. ildo)

Proiektu berritzaileak Ekonomia Zirkularraren 2030eko Euskal Estrategiaren helburuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Planean eta Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean (2030) laguntzen duten beste tresna bat dira.

⁵⁴ Eusko Jaurlaritza, Agindua, 2020ko martxoaren 4koa, zeinaren bidez aldi baterako premiazko neurriak ezartzen baitzaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin ez-arriskutsuen kudeatzaile eta ekoizle jakin batzuei, Bizkaiko Zaldibarko udal-mugartean, Verter Recycling 2002 SL enpresaren titulartasuneko den hondakin ez-arriskutsuen zabortegian izandako gertakari larriaren ondorioz, 2020

⁵⁵ Eusko Jaurlaritza, Agindua, 2015eko urtarrilaren 12koa, zeinen bidez ezartzen baitira eraikuntza- eta eraspain-hondakinen balorizaziotik sortutako agregakin birziklatuak erabiltzeko baldintzak, 2015

⁵⁶ European Commission, [Proposal for Regulation concerning batteries and waste batteries](#), COM/2020/798 final

⁵⁷ Espainiako Gobernuak, [Ekonomia zirkularreko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legea, ekonomia zirkular baterako](#)

⁵⁸ Basque Ecodesign Center eta Ihobe, [Ingurumen-zaintza estrategikoaren txostena](#), 2022

⁵⁹ Basque Ecodesign Center, [Hornidura-kateko ingurumen-trakzioarekin konprometituta](#), 2014

⁶⁰ Sustainable Purchasing Leadership Council, [Supplier Sustainability Ratings](#), 2020


⁶¹ Eusko Jaurlaritza, [4/2015 Legea, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa](#), 2015

⁶² Eusko Jaurlaritza - Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila, [Lurralde Plangintza Sektoriala](#)

⁶³ Eusko Jaurlaritza - Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila, [Lurralde Plangintza Sektoriala](#)


⁶⁴ Ihobe, [Euskal Autonomia Erkidegoan ekonomia zirkularreko ekoberrikuntzan eta ekodiseinuan enpresei laguntzeko programak](#), 2018.

⁶⁵ Ihobe, [Ekodiseinuaren, ekonomia zirkularreko frogapenaren eta Ekoberrikuntza Estrategikoaren alorreko proiektuetarako laguntzak](#)



1. irudia: Ekodiseinurako, ekonomia zirkularreko frogapenerako eta ekoberrikuntzarako laguntzen deialdiko proiektu berritzaileen zenbatetsitako emaitza nagusiak. 2014-2021. Urte arteko deialdien 215 proiektuak amaitu ondoren aurreikusitako emaitzen zenbatespena

Ekoberrikuntza Zirkularreko Programa (2014-2021) 2018 proiektu lehentasunezko esparruen arabera



2. irudia: 2014 eta 2021 bitartean sustatutako Ekodiseinurako, Ekonomia Zirkularreko Frogapenerako eta Ekoberrikuntzarako Ihoberen Laguntzen Deialdien 215 proiektuak gaika banatzea

Hauek dira espero diren ingurumen-emaitza nagusiak: berotegi-efektua eragiten duten gasak (BEG) murriztea, materialak aurrezte eta hondakinak gutxiago isurtzea. Aurreikusitako beste emaitza batzuk dira: fakturazioa urtero handitzea, inbertsioa, produkzioaren kostu unitarioa murriztea eta enplegua sortzea. Laguntza publiko horien eraginkortasun-kostua "emandako laguntzaren artean aurreikusitako urteko fakturazioa" ratioaren bidez neurtzen da.

DEIALDIAREN LEHENTASUNEZKO EREMUAK



Proiektuak baloratzeko irizpideetako bat “2030 Ekonomia Zirkularreko Estrategiaren lehentasunezko eremuekin bat etortzea” da, edo “Lurralde” gunea Euskadiko beste ingurumen-estrategia batzuekin lotzea. 2023ko deialdiko lehentasunezko eremuek aurreko deialdiekin jarraitzea dakarte, eta deialdi horiek egokitu egin dira egungo egoerara, Europako beste programa batzuekin^{67,68} egindako benchmarking-era eta amaitutako edo gauzatze-fase aurreratuan dauden 215 proiektuen⁶⁹ balorazioaren ondorioetara⁷⁰.

Lehentasunezko esparru hauek ez dira baztertzailerak. Beraz, baliteke laguntza eskaerak aurkeztea lehentasunezko gisa sailkatu ez diren beste arlo batzuetan.

Ondoren deskribatzen diren esparruen alderdiak gutxi gorabeherakoak dira, eta enpresei aukera potentzialak atzematea errazten dute.

1. EKIPAMENDUEN, OSAGAIEN ETA MUGIKORTASUNAREN EKODISEINUA

Justifikazioa

Europako Batasunean, ekodiseinuak 57.000 milioi euroko aparteko diru-sarrerak lortuko lituzke 2030erako industriarentzat, eta 500 euro aurreztuko lirarteke urtean etxe bakoitzeko⁷¹.

Euskal Autonomia Erkidegoan, ekodiseinu-irizpideak aplikatu dituzten produktuen eta zerbitzuen salmentagatik EAEko 41 enpresak 2.852 milioi euro fakturatu zituzten 2016an, eta fakturazio osoaren %28 izan zen.

2020. urterako 7.253 milioi euroko fakturazioa aurreikusten da, hau da, fakturazioaren % 46⁷². Ekodiseinu-irizpideak aplikatzen dituzten euskal enpresak⁷³ 150 baino gehiago dira gaur egun⁷⁴

Euskal enpresek erronka eta aukera aipagarri hauek dituzte:

- Ekodiseinuak⁷⁵ % 20 inguru aurrezten ditu lehengaiak enpresa askotan produktuak fabrikatzeko, eta energiaren kontsumoa eta erabilera-faseko emisioak % 3 eta % 30 artean murrizten ditu motorretan, argiztapenean eta haizagailuetan⁷⁶
- Ekodiseinuak sortutako aurrezki ekonomikoak prozesuen garestitzea baino gehiago dira
- Ekodiseinatutako produktuek EAEko enpresen onuretan duten eragin positiboa % 46 da; Europako Batasunean, berriz, % 64, eta mozkin-marjina gehigarria ohiko produktuetan baino % 24 handiagoa da⁷⁷
- Ekodiseinua egiten duten euskal enpresen % 94k nazioarteko merkatuetan merkatu nazionalezkoen berdina edo handiagoa den produktu eta zerbitzu ekodiseinatuen fakturazioa areagotzeko itxaropena dute.
- Enpresen % 59ren ustez, ekodiseinua funtsezkoa da zaintzen dituzten merkatuak bereizten laguntzeko.
- Ekodiseinuak handitu egiten du enpresen produktuak, osagaiak eta materialak berritzeko barne-gaitasuna

⁶⁷ Bmbf - Ministry of Education and Research: [Resource-efficient Circular Economy Innovative Product Cycles. ReziProK. Project flyers.](#), 2021

⁶⁸ Afil Associazione Fabbrica Intelligente Lombardia, *Lombardy Roadmap for Research and Innovation on Circular Economy. R&I priorities enhancing Circular Economy in Lombardy*, 2020

⁶⁹ Ihobe, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa [Ihobe laguntzak ekonomia zirkularreko berrikuntza-proiektuetarako](#), "I+G+B Ekonomia Zirkularra Finantzatzeko Europako Tresnak" (2019) izeneko SPRI Jardunaldiaren barruan.

⁷⁰ Ihobe, [2019 deialdiko proiektu berritzaileak](#), 2020

⁷¹ Europako Batzordea, *Ecodesign impacts accounting. Status Report*, 2016

⁷² Orkestra eta Ihobe, *Oportunidades de negocio que ofrece el ecodiseño a las empresas del País Vasco*, 2017

⁷³ Spri eta Ihobe, *Made in Euskadi ekodiseinuaren 20 urte katalogoa*, 2021

⁷⁴ Ihobe, *Ecodesign made in Euskadi. Produktuaren ingurumen-berrikuntzaren 15 urte*, 2014

⁷⁵ Ihobe, *Ekodiseinuari buruzko sektoreetako gidak. Elektriko-elektroniko. Automozioko osagaiak. Makina-erreminta*, 2010

⁷⁶ Ihobe, *Ecodesign made in Euskadi*. 120 kasu praktiko, 2014

⁷⁷ Pole Ecoconception eta Institut de Developpement de Produits, *Profitability of Ecodesign. An Economic Analysis*, 2014



- Ekodiseinatu diren ekipoak eta makinak Teknologia Garbien Euskal Zerrendan sar daitezke, transferigarritasunaren eta ingurumen-errendimenduaren arabera. Zerrenda horrek aukera ematen die euskal enpresei sozietateen gaineko zergaren kuotaren % 30eko kenkaria egiteko
- Produktuaren iraunkortasunera bideratutako ekodiseinua ezinbesteko metodoa da serbituzioan oinarritutako negozio-eredurantz aurrera egiteko.
- Digitalizazioa teknologia eraldatzailea da eta, haren bidez, makinaren eraginkortasuna monitorizatu eta optimizatzen da, baita mantentze-lan proaktiborako eta “produktuaren balio-atxikipena” egiteko trazabilitate egokia ahalbidetu ere

Sektore eta balio-kate garrantzitsuak

Industria Emisioen Zuzentzarauak (IPPC) eragindako sektoreetarako, Ekodiseinu Zuzentzarauak (IPPC) eragindako ekipoetarako eta ekipo elektriko eta elektronikoetarako (bateriak barne), sektore berriztagarriko ekipo eta osagaiena, eta mugikortasun arloko BEGen emisioak murrizten laguntzen duten pieza eta osagaiena.

I+G+b beharrak

- Ekodiseinua, bizitza erabilgarria luzatzeko.** Produktu edo osagai baten lehen diseinua edo hobekuntzak, haren bizitza erabilgarria ahalik eta gehien handitzeko. Arlo horretan kontzeptu hauek sartzen dira, besteak beste: erabilera-faseko mantentze-lanak, berritze-lanak modularitatearen bidez, konpontze-lanak, desmuntatze-lanak, berrerabilera eta birfabrikazioa⁷⁸ (adibidez, Li Ion bateriena, energia berriztagarrien osagaiena...). Bereziki garrantzitsua da Ekodiseinuko Zuzentzarauak (ESPR)⁷⁹ eragindako produktu eta ekipoentzat, beste ekipo eta makina batzuentzat, iraunkortasunari eta ekonomia zirkularrari buruzko EN 45552tik 45559ra doazen arauak baino lehenagoko arau berriak goiz aplikatu baitaitezke⁸⁰. Modelizazio eta kontrol hobea ahalbidetzen duen sensorikaren integrazioa sartzen da; baita produktu eta osagaien iraunkortasun handiagoa lortzen lagunduko duten trazabilitate-sistemak barneratzea ere⁸¹. Transferigarritasun handiko ikuspegia badu, eskaera Ekoberrikuntza Estrategikoaren 2. ildora bidera daiteke.
- Erabateko birdiseinua, funtzionaltasuna optimizatuz.** Eskatutako funtziotik abiatzeak produktuak ikuspegi integral batetik erabat berritzeko aukera ematen du; hala, produktuaren bizi-zikloko ingurumen-inpaktuak nabarmen murrizten ditu.
- Ekodiseinua, baliabideak erabilera-fasean modu eraginkorren kontsumitzeko.** Erabilera-faseko energia-kontsumoa produktu eta ekipamendu askotarako da ingurumen-alderdi nagusia. Digitalizazioak⁸² (sentsorika, simulazioa eta kontrola) nabarmen lagun diezaioke baliabideen eraginkortasunari. Erabilera-faseko materialen kontsumoa ekodiseinuaren bidez ere murriztu daiteke, “ia azken forma” emateko makineria (Near Net Shape) edo moldeak, esaterako.
- Desmaterializaziora bideratutako ekodiseinua.** Miniaturizazioak, arintzeak edo ingurumen-aztarna txikiagoa duten materialak sartzeak produktu askoren ingurumen-aztarna murrizten laguntzen dute, bereziki energiari kontsumitzen ez dutenena. Halaber, garrantzitsua da ingurumen-inpaktu handiko eta hornidura-arrisku handiko material kritikoaren sarrera murrizten saiatzea, hala nola iman iraunkorren neodimioa eta disprosioa, EN 45558 berria bezalako arauetan oinarrituta.

⁷⁸ Basque Ecodesign Center, *5. Ideien koaderno. Produktuaren Iraupena*, 2014

⁷⁹ Basque Ecodesign Center, [ErP Zuzentzaraua Energiarekin lotutako produktuen diseinu ekologikoa](#), 2019

⁸⁰ Basque Ecodesign Center, [Ekonomia zirkularrago baterako trantsizioa burutzeko arauen eta Ekodiseinuko Zuzentzarauari laguntzeko baldintzen M/543 agiria. Europako Batzordearengana](#), 2019

⁸¹ Ihobe eta Basque Ecodesign Center, [Energiarekin lotutako ekipoetan ekonomia zirkularreko alderdiak ebaluatzeko metodologia](#), 2021 (editatzen)

⁸² Afm eta Basque Ecodesign Center, [Informe de vigilancia y competitividad ambiental, Sector máquina herramienta en Euskadi](#), 2017



- e) **Ekodiseinua, birziklagarritasunerako.** Ia material guztiak errazago birziklatzeko irizpideak sartzea produktuaren diseinuan⁸³. Material kritikoak, iman iraunkorren neodimioa esaterako, birziklatzeko ordezkatzeta, minimizatzea edo diseinatzea ere sartzen da.

2. ONTZI ETA BILGARRIEN EKODISEINUA

Justifikazioa

Europako Batasunean, ontzi eta enbalajeek plastiko guztien % 39,7 kontsumitzen dute⁸⁴. Bai Europar Batasuneko Plastikoen Estrategiak, bai erabilera bakarrekoko plastikoen SUP Zuzentarauak⁸⁵ 2030erako % 100 birziklagarria izatea, % 50 birziklatzea eta % 30 birziklatutako materiala izatea dute helburu.

EAE n urtean 196.000 tona plastiko kontsumitzen dira ontzi edo enbalajeetarako. Horietatik, ontzien fabrikatzaileek urtean 85.500 tona kontsumitzen dituzte, eta edarien eta plastikoen ontziratutako produktuen komertzializazioak urtean beste 110.500 tona gehiago.

Hamar dira Euskal Herrian ontzi plastikoak egiten dituzten eta urtean 4 milioi eurotik gorako fakturazioa duten enpresak.

Horrez gain, paper- eta kartoi-ontzien eta bilgarrien sektorea nabarmentzen da, eta baita prestazio handiko industria-bilgarrien sektorea ere, neurri handi batean zura, garrantzi ekonomiko handikoa.

Ontzi eta enbalajeen ekodiseinuan euskal enpresek dituzten erronka eta aukeren artean ditugu⁸⁶, besteak beste:

- Oreka lortzea ontziak arintzearen (neurri batean material desberdinetako geruza anitzetan oinarritua) eta bizi-zikloaren ikuspegi sistemiko eta integral batetik birziklagarritasunaren artean⁸⁷.
- Ontziaren eta enbalajearen funtzionaltasuna, bizitza laburreko produktua, eta lehengaien erabilera masiboa bereiztea. Ontziratutako edo bildutako industria-produktuak horretarako berrikuntza-eremu egokia izan daitezke.
- Ekodiseinuaren bidez, Europako Batzordea Ekonomia Zirkularreko Estrategiaren esparruan prestatzen ari den ontziei eta bilgarriei buruzko legediaren berrikuspenei eta erabilera bakarrekoko plastikoei buruzko SUP Zuzentarauari aurrea hartzea. Bi tresna horiek nabarmen aldatuko dituzte ekoizlearen egungo erantzukizun hedatuaren eskemak.

Sektore eta balio-kate garrantzitsuak

Bizitza laburreko produktueterako ontzi- eta bilgarri-fabrikatzaileak; baliozko ekipo eta osagai industrialetarako bilgarri-fabrikatzaileak; banaketa eta logistikako enpresak; produktuen ontziratzaileak eta paketatutako beharrekoko industria-ekipoen fabrikatzaileak.

I+G+b beharrak

- a) **Kontsumoko ontzi eta enbalajeen sistema berritzaileak.** Produktuak eta ekipoak ahalik eta modurik eraginkorrean babesteko eta solido eta likidoen manipulazioa

⁸³ Basque Ecodesign Center, 17. *Ideien koaderno. Materialak berreskuratzeko ekodiseinua*, 2017

⁸⁴ Plastics Europe, *Plastics – the Facts 2019. An analysis of European plastics production, demand and waste data*, 2020

⁸⁵ Europako Batzordea, *Proposal for a Directive on the reduction of the impact of certain plastic products on the environment COM/2018/340 final*, 2018

⁸⁶ Ecoembes eta Ihobe, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa *Ontzi eta enbalajeen ekodiseinuaren gida*, 2017

⁸⁷ Ecoembes eta Ihobe, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa *Guía de etiquetado ambiental para envases y embalajes*, 2018



errazteko erabateko diseinu edo birplanteamendua, garraioan eta bizi-amaieran eragin txikiagoa izan dezan.

- b) **Bilgarri industrialen sistema berritzaileak.** Produktu eta ekipo industrialak ahalik eta modurik eraginkorrean babesteko eta solido eta likidoen manipulazioa errazteko erabateko diseinu edo birplanteamendua, garraioan eta bizi-amaieran eragin txikiagoa izango duena eta, horretarako, bizi-zikloaren ikuspegitik negozio-eredu zirkularra egokituko dena.
- c) **Ontzi eta enbalaje berrerabilgarrien diseinua.** Diseinua hobetzea⁸⁸, haien konponketa eta berrerabilera erraztuko duten sistemak, teknikak eta materialak ziurtatuz, aldi berean hainbat bizi-zikloren ondoren birziklatze egokia ahalbidetuz.
- d) **Ziklo itxiko ontziak dituzten sistema logistikoak garatzea.** Ondasunak eta ekipoak banatzeko bizi-zikloaren ikuspegitik optimizatutako berrerabilera (adibidez: on line salmenta-plataformak, salgaiak merkataritzara edo industriara banatzen dituztenak)

3. IRAUNKORTASUNA LORTZEKO SERBITIZAZIOA

Justifikazioa

Europako Batasunean, negozio-eredu zirkular batera aldatzeak, non enpresa fabrikatzailea produktuen salmentarekiko mendekotasuna murrizten den eta bezeroen beharrak asetzen dituen, aukera ematen du lehen enpresa fabrikatzailearen interesekin bateragarriak ez ziren ekodiseinu-estrategiak aplikatzeko. Eredu horiek diru-sarrera egonkorren iturri izan daitezke, eta azken 5 urteetan⁸⁹ 4 enpresatik batean % 25 eta % 50 bitarteko hazkundera, ziklo ekonomikoak edozein direla ere.

EAEn, 4.0 industriaren kontzeptuek bat egiten dute eta, ondorioz, "Smart" produktuen eta ekoizpen adimendunaren kontzeptuek, zerbitzu aurreratuen garapenak eta produktu eta zerbitzuen hornitzaile eta erabiltzaile diren enpresen arteko loturen indartzeak (serbitizazioa)⁹⁰.

Hauek dira euskal enpresek serbitizazioan eta negozio-eredu zirkular berrietan dituzten erronkak eta aukerak:

- Halako eraldaketa bat egiteko, beharrezkoa da balio-katearekin integrazioa ibaian gora egitea, ISO 14000 arauak eta ekoizlearen erantzukizun hedatuak bere dituztenak, eta baita ibaian behera ere, balio-sareak sortuz. Gainera, tartean diren eragileen artean informazioa gardena izan behar du.
- Euskadin, sektore hauek aldatu dira negozio gisa zerbitzuen pisu handiagorantz: aeronautika, makinaren fabrikazioa, industria kimikoa eta, neurri txikiagoan, ekipamendu eta garraiobideenak.
- Enpresa batzuek⁹¹ zerbitzu-sorta zabala eskaintzen dute produktuaren bitzita osorako. Nabarmentzekoa da instalazioa, mantentze-lan prediktiboa, akatsak saihesteko;

konponketa; eraginkortasuna handitzeko etengabeko hobekuntza-programak; ekipamendu zaharrak teknologia berriekin eguneratzea, errendimendua optimizatzeko; balio-bitzita luzatzea monitorizazio-sistemen eta egitura-hobekuntzen bidez; berregokitzea, desinstalatzea; desmuntatzea eta bereiztea; piezak berreskuratzea; hondakinak birziklatu eta kudeatzea.

⁸⁸ Ellen MacArthur, *Reuse. Rethinking Packaging*, 2019

⁸⁹ Fundación Ambiental y Obra Social La Caixa, *Outlook ecoinnovación y su potencial en España*, 2016

⁹⁰ Ekonomiaz, *Renacimiento industrial, manufactura avanzada y servitización*, nº 89, 2016

⁹¹ Sitra eta Accenture, *Circular economy business models for the manufacturing industry*, 2018



Sektore eta balio-kate garrantzitsuak

Makina eta ekipamenduen, tresna elektriko eta elektronikoen, mugikortasunaren, ehungintzaren, altzarien, produktu kimikoen edo denda eta eraikinak zaharberritzeko zerbitzuen fabrikatzaileak

I+G+b beharrak:

- a) **Produktuaren funtzioa zerbitzu gisa.** Bezeroari produktu bat edo haren funtzioa erabiltzeko eskaintza egitea harpidetza bidez edo “erabilpen bidezko ordainketa”⁹² bidez, eta aurrez zehaztutako kalitate jakin bat duen zerbitzu bat erosteko eskaintza egitea, bi aldeen artean adostutako emaitza bermatuz⁹³
- b) **Produktuak eta ekipoak berrerabiltzeko sistemak.** Industriari (B2B) edo azken kontsumitzaileari (B2C)⁹⁴ zuzendutako produktuak birsaltzeko eredu berritzailea, aparatu elektriko-elektronikoekin, ehungintzarekin⁹⁵ eta altzariekin, bigarren eta hirugarren eskuko merkatu baterako. Negoziorako alderdi berritzaileak barneratzen ditu eta, bereziki, ingurumen-alderdiak minimizatzen ditu.
- c) **Ekipoak eta osagaiak erabiltzeko fasea optimizatzea.** Simulazio, sentzorika, erregulazio eta kontrol bidez monitorizatzea eta digitalizatzea, ingurumen- eta ekonomia-inpaktuak murrizteko eta fabrikatutako produktuen bizitza luzatzeko aukera emango duen mantentze-lan prebentiboa eta/edo prediktiboa egiteko.
- d) **Alderantzizko logistika sistemak eta ziklo itxiturak.** “Ziklo itxiko hornidura-katearen” logistika elkarrekin konektatuta antolatze berrikuntza oso garrantzitsua da produktu- eta osagai-zikloak planifikatzeko eta kontrolatzeko. Birfabrikaziorako⁹⁶, konponketa aurreraturako edo berrerabilpenerako zentro logistikoen diseinua edo “Core Centres” direlakoak dira gehien errepikatzen den jardueretako bat. Informazioaren trazabilitate-sistemen garapena barne har dezake, berreskuratu beharreko materialen edo produktuen informazioa ebaluatze. Enpresa ekoizlearen erantzukizun hedatuak, legez edo bere borondatez, erraztu egiten du produktuak beren bizitza baliagarriaren amaieran berreskuratzea fabrikatzaileek eta merkaturatzaileek, baita berrerabiltzeko plataformek eta birmanufaktura-enpresek produktu zaharkituak eskuratzea ere. Enpresen arteko datu-trukea eta plangintza- eta kontrol-tresna komunak barne, balioa sortzeko sareetan zehar baliabideen eta energiaren eraginkortasuna optimizatze (adibidez: alderantzizko logistika, materialen fluxuen trazabilitatea).
- e) **Hornitzaile-katearen “berdetze” estrategikoa.** Hornitzaileak euskal enpresa handi bat hornitzen duten produktuen eta zerbitzuen ingurumen-hobekuntzan inplikatzeko, hornitzaileei ingurumen-errendimendua hobetzen lagunduko dien ekonomia zirkularreko lankidetzak eta euskarri-mekanismoak ezarriz. Eskatera Ekoberrikuntza Estrategikoaren 2. ildora bideratu liteke.

4. BIRMANUFAKTURA ETA KONPONKETA AURRERATUA

Justifikazioa

Birmanufakturak⁹⁷ 30.000 milioi euro inguruko salmentak sortzen ditu urtean Europan, eta 190.000 pertsonari ematen die lana. 2030ean 98.900 milioi euro/urte sortzea espero da, eta 587.000 pertsona enplegatuko ditu, % 200etik gorako hazkundearekin⁹⁸.

Europako Batzordeak Ekodiseinuko Zuzentarauaren eraginpeko produktuetan birmanufaktura- eta konpongarritasun-irizpideak sartzen hasi da, NBEekin batera

⁹² Ihobe, *Produktuaren Serbitutzioa: negozio-eredu berriak ekonomia zirkular baterako – Gida praktikoa*, 2020 (editatzen)

⁹³ Basque Ecodesign Center, *1. Ideien koaderno. Product Service Systems*, 2014

⁹⁴ Zero Waste Scotland: *Procuring for Repair, Re-use and Remanufacturing Category and Commodity Guidance*, 2016

⁹⁵ Ellen MacArthur Foundation, *A new Textiles Economy*, 2017

⁹⁶ Sundin E et al., *Map of Remanufacturing Business Model Landscape*, European Remanufacturing Network, 2016

⁹⁷ European Environment Agency, *Contribution of remanufacturing to Circular Economy*, Eionet Report - ETC/WMGE 2021/10

⁹⁸ Europako Batzordea eta European Remanufacturing Network, *Remanufacturing Market Study*, 2015



“produktuaren balio-atxikipena”⁹⁹ kontzeptua garatu du, “konponketarako eskubidea” babesten du eta dagoeneko garatu du produktuen konpongarritasun-indizea¹⁰⁰.

Euskal Autonomia Erkidegoan¹⁰¹, berriz manufacturatzetik eta konponketa aurreratutik sortutako fakturazioa 42 industriatan 74 milioi eurokoa izango dela zenbatesten da, eta 2025erako 192 milioi euroko hazkundea izango dela kalkulaten da, eta gaur egungo enplegua 1.162koa¹⁰²¹⁰³ izango dela kalkulaten da, baldin eta jarduera horretan potentzial handia duten 33 enpresa berri sartzen badira ekipamendu-ondasunen, makinaren, igogailuen, energiaren eta automozioaren sektoreetatik.

Hauek dira euskal enpresentzat identifikatutako erronkak eta aukerak¹⁰⁴:

- Balio handiko materialen aurrezkoa eta emisio murriztuak 100 eta 300 tonara iristen dira, hurrenez hurren, fakturatutako milioi euroko, automozioeko osagaien eta ekipo elektrikoaren sektoreetan kontabilizatuta.
- Birmanufacturatutako produktuaren prezioa jatorrizkoarena baino % 40 txikiagoa da¹⁰⁵, eta bezeroari entregatzeko epea murriztuta dago
- Birmanufacturatzeko enpresen % 83k uste du jarduera horren enpresa-onura aktiborik garrantzitsua dela¹⁰⁶
